

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **38/2019 Mozioa, urriaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiari eskatzen diona jarrai dezala familiari eta hurrei laguntzeko jarduerak garatzen**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

38/2019 Mozioa, urriaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiari eskatzen diona jarrai dezala familiari eta hurrei laguntzeko jarduerak garatzen.

1. Arabako Batzar Nagusiek erakundeei eta eragile sozialei eta ekonomikoei eskatzen diete gizarte ko-arduratsua sustatu dezatela hainbat politikaren eta jardueraren garapenaren bidez, ekoizpen- eta lan-arloan eta ugalketa- eta zaintza-arloan pertsonak bidezko eran parte har dezaten, bizitzako ibilbideen ondoriozko premia guztiei erantzuteko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote familiari eta haurtzaroari laguntzera zuzendutako jarduerak garatzen jarrai dezala, batez ere haur guztien aukerak eta ongizatea bermatzeko, bizi diren familia-motari kasurik egin gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 31

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**